

AIURRI

BETERRI-BURUNTZAKO ASTEKARIA



"Amama" dantza- ikuskitzuna, labetik atera berritan



Igande honetan, Sarobe arte eszenikoen gunean ikuskizun berriena oholzaratuko du Aukeran dantza konpainiak. Sarrerak agortuta daude / 8-9

DAVID HERRANZ

Zentral eolikoak, gurean

Urumealdean iragarri diren bi egitasmoen gain, Buruntzakoaren berri zabaldu da / 2-4

**Jaialdi aparta
antolatu zuen
Larramendi
Bazkunak, Bastero
Kulturgunean / 7**

**Abendua izanik ere,
garrantzi handiko
partidak jokatuko
dira asteburu
honetan / 12-13**

**EGAPE
IKASTOLA**
urnietarron eskola publikoa

ESKURATU INFORMAZIOA
+ INFO



943009275 HLH / EIP
943899425 DBH / ESO

www.egape.eus



LASTER MATRIKULA ZABALIK

Ezagutu gaitzazu!



Nerea Mendizabal
Hitzaldia
Oinarri sendoa duen haurtzaroaren alde

0-3 urte arteko haurren familientzat
Abenduaren 18an, 17:00-19:00
HH 2ko eraikinean (Etxeberri Plaza)
Zaintza zerbitzua egongo da



Arano-Goizueta estazio megalitikoak bete-betean hartuko luke bertan aurreikusitako zentral eolikoak. **AJURRI**

Honaino iritsi da haize-erroten zirimola

Adarra-Mandoegiko parajeetan, bi zentral eolikoen proiektuak abian direla jakin ahal izan da azken aldian, eta eztabaida eta kezka eragin dute zuzenean ukitzen dituzten herrietako udal, elkarte eta herritar ugarirengan; Aranon, Goizuetan eta Hernanin, batik bat

Xabier Lasa ESKUALDEA

Bi proiektu dira, Hernani eta Arano inguruetan kokatzen direnak, eta biak ere multinazional energetikoen sustaturikoak. Gaurkoz ez dago informazio zehatz handirik, eta bai, ordea, erantzunik gabeko galdera ugari. Hurrengo hilabeteetan joango dira bi proiektuak definitzen eta, ziurrenik, gauzatzen. Bien bitartean, hainbat informazio-iturritatik egin beharra dago tiraka. Horien artean leundeke bi proiektuen bultzatzaileek jakinarazi dituzten zehaztapen bakanak (Hernani ingurukoak Jaurlearitzari aurkeztu dion proiektu generikoa, eta, bi proiektuen susta-

tzaileek Hernani eta Aranoko Udal arduradunei jakinarazi dizkietenak) eta proiektuekiko desadostasuna azaldu duten herritarrek eta taldeek lortu duten informazioa nahiz horietatik ateratako ondorioak.

Hernaniko lur-eremuan, proiektuetako bat

Euskal Jaurlearitzako Ekonomiarren Garapen, Jasangarritasun eta Ingurumen Sailak, Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkariaren maiatzaren 23ko alean, honako iragarpen hau argitaratu zuen: “Lehia posible baten ondorioetarako, Hernaniko udal-mugaratean (Gipuzkoa) Ikatz Gane parke eolikorako alde aurreko

administrazio-baimenaren eskaera”. Iragarriak hogeitau eguneko epea eman zuen parke eoliko hori ezarri eta ustiatzeko interesa duten pertsona fisiko edo juridikoen lehia-eskabidea aurkez zezaten. Oraingoz, bada hautagai bat: Sevillan egoitza duen eta energia berriztagarrien sektorean lan egiten duen Enigma Green Power 26 S.L.U. da enpresa eskatzailea, eta 33 Megabateko potentzia eragingo luketen bost haize-sorgailu instalatzeko eskaria egina dauka.

Proiektu eolikoak kaltetuko lukeen lurraldea barne hartzen duen “poligonala” kokatzeko koordenadak eman zituen iragarriak, halaber.

Horren arabera, Hernaniko Ereñotzu auzoa (Pagoaga bailara, hain zuzen) kaltetuko luke zuzenki. Azpimarratzekoa da bi zentralen gaineko datuen eskasia, eta, oraingoz, Mikel Alvarez makroproiektuen aurkako ekintzaileak zabaldu duen azterketak (ikus, hernaniarano.wordpress.com ataria) eskaintzen digu informaziorik zabalena. Azterketa horren arabera, berez, Hernaniko proiektuak Aranoko eta Elduaingo mugak ukituko lituzke, izan ere, Adarra, Zaburu, Azketa eta Garagartza mendien arteko zonaldean kokatuko litzateke. Hain zuzen, Pagoaga auzoko Pagalegi-Garagartza mendilerroan eta Aranoko mugan (Nafarroa) Garagartzatik Unamene aldera (San Migel Soro) duen luzapenean.

Statkraft multinazional norvegiarrak Azepeitian (Sañu mendi inguruan) ezarri nahi duen zentral eolikorako egindako ingurumen-inpaktuaren azterketa oinarri hartuta, zenbait datu tekniko irakur daitezke aipatu azterketan. Horietako askok, zentral eolikoan azpiegitura-lanek naturan inpaktu nabarmena eragiten dutela nabarmetzen dute; hala nola, 205 metroko haize-aerosorgailuen zimenduak 23'40 m-ko diametroa eta 4'20 m-ko lodiera duen hormigoï armatuzko zapata zirkular baten bidez egiten direla, 30 urteko bizitza dutela, edota, poligono eolikora sartzeko bideen gutxieneko zabalera 6 m-koa dela, eta, gainera, euri-ura husteko ur-pasabideak egin behar izaten direla bidearen bi aldeetan. Sarbideko azpiegituren atalari dagokionez, eta Hernaniko proiektua hizpide hartuta, Alvarezzen azterketak, balizko sarbide gisa, Pagoaga auzoa (Ereñotzu) nahiz Besabi (Urnietan) aipatzen ditu, batik bat.

Bestalde, Alvarezzen azterketak atal ugari eskaintzen dizkio bi proiektuek Urumeako bailaran, naturan zein giza-ingurunean, sortuko lituzketen eragin kaltegarriek. Hernanin, hautsak harrotu ditu proiektuaren iragarpenak, azken hilabeteetan.

ADARRA, ZABURU, AZKETA ETA GARAGARTZA ALDEAN KOKATUKO LITZATEKE PARKE EOLIKO BAT

Hernani Burujabe ekimena, alternatiba bila

Horren adibide da tokiko garapen burujabe oinarritzen den Hernani Burujabe ekimenaren eskutik eman diren urratsak, azken asteetan. 2021ean sortu zen herri-proiektu bat da ekimen hori, herriko ehun ekonomiko, sozial eta administratiboa barnebiltzen dituen trantsizio ekosozialerako alternatiba praktikotzat jotzen dena: “Egungo eredu ekonomiko xahutzaile, ekologikoki jasanezin eta ezberdintasun sortzailearen aurrean, alternatiba bizigarri, iraunkor eta parekide bat martxan jarri nahi du, justizia sozial eta ekologikoa eta planifikazio eredu publiko-ekonomiko-komunitarioa ardatz hartuta”. Bada, ekimen horren barnean, eoliko gaia gertutik jorratzeko Hernaniko Bidea herritar taldeak, Sagarreta Natur Taldeak eta Enherkom energia komunitateak eolikoan lantaldea osatu dute, Hernaniko Udalarekin eta Ereñotzuko Auzo Udalarekin batera.

Hiru eragile horiek joan zen azaroaren 13an egin zuten agerraldian, beren iritzia jakinarazi zuten: onartezintzat jo zuten Hernanin kokatu nahi duten zentral eolikoak, eta adierazi zuten ezinbestekoa dela halako proiektuak herritarrek in eta eragile publikoekin lantzea.

Urumea bailarako *Kronika* egunkariak jaso zuenez, aipatu eragileek argi utzi zuten beharrezkoa dela iturri berriztagarrien aldeko apustua egitea, energia fosilak ordezkatzeko: “Klimalarrialdi egoeran gaude; bioiztasun galera eta ondare naturalaren kaltetzearen atzera ezinezko prozesu batean sartuta gaude, eta deskarbonizazioa bultzatzeko neurriak hartu behar ditugu”.

Ohartarazi zuten oso menpekotasun energetiko handia daukala Euskal Herriak, energia kanpotik ekartzen duela eta energia fosiletan oinarritzen dela hori. Hernanira begira jarrita, zera gaineratu zuten, “horrek esan nahi du burujabetzatik oso urrun gaudela, eta energia bertan sortzen apustua egin behar dugula. Izan ere, Hernanira energia ekartzeko, beste toki batean ari dira sortzen ondorioak”.

Urumeako bi proiektuak zehazki aztertzen hasita, kontrako argudioak zerrendatu zituzten. “Batetik, ez datoz lurralde an-

tolaketa edo plangintza publiko baten arabera. Are gehiago, oraingoz aurkeztu diren dokumentuen arabera, Eusko Jaurlaritza egiten ari den Energia Berriztagarrien Lurralde Plan Sektorialak jasotako instalazio eolikoetarako, balizko kokalekurik ez dago Hernanin eta Urumea bailaran. Bestetik, kokalekua erabakitzeko garaian, efizientzia energetikoaren izean, errentagarritasun ekonomikoa jartzen da gure mendien aberastasun natural eta arkeologikoaren gainetik. Balio handia duten eremuetan eragingo lukete proiektuek, eta herritarrek ez dute aukerarik izan eztabaidatzeko ere. Ondoren egiten dituzte ingurumen inpaktuaren azterketak, legeak hala behartuta. Gainera, ezagutzen ditugun multinazional energetikoen eskutik datoz proiektuak, eta haien zatik ez da lehentasuna faktore horien arteko oreka bermatzea, haien irabazi-tasak handitzea baizik. Eta, azkenik, badakigu zenbait kasutan beren lan-esparrua energia fosiletan dagoela batez ere, eta, beraz, horiek berriztagarriekin ordezkatzeko baino gehiago, berriztagarriekin negozio bolumena handitzea eta irabazi handiagoak lortzea dute helburu".

Funtsezkoa ikusten dute proiektuak herritarrekin eta eragile publikoekin batera lantzea eta formula topatzea proiektuaren sorreratik "herritarren parte-hartzea bermatzeko, haren dimentsioan, kokalekuan, diseinuan eta kudeaketan. Jabetzan ere parte hartzeko modua izan behar dute, eta kasu honetan ez dugu bermatuta ikusten".

Xabier Lertxundi Hernaniko alkateak ere azaldu du iritzia egunotan, *Kronika* egunkariari azaroaren 16an eskainitako elkarrizketan. Bi proiektuek dute eragin zuzena Hernanin, eta alde horretatik, baieztatu zuen bi enpresa sustatzaileak jada jarri direla harremanetan Udalarekin. Bileran horietan, alkateak helarazi zien "herrian kezka sortu dutela proiektuek. Horretaz kontziente izan behar dute. Kontua

MANDOEGI-ADARRA MENDI-LERROAN KOKATUKO LITZATEKE BIGARREN PARKE EOLIKOA

ez da proiektu batekin etorri eta edozer egitea edozein modutan. Herritarren kezkek helarazteko eragile bat izango da Udala, eta azaldu genien, herritarren partaidetza eduki behar dutela horrelako proiektuek; kolaborazio publiko komunitarioak izan behar dituztela. Tendentzia izan daiteke enpresa etorri eta konpentsazio bat ematea. Baina gu beste pauso bat eskatzen ari gara, proiektu hauek herritarra goak izatea". Alde horretatik, gehitu zuen Udalaren jarduna izango dela herritarrei eta eragileei helaraztea daukan informazio guztia, "enprekin bilerak egiten ditugun aldiro".

Lertxundik azpimarratu zuen hausnarketa egin beharra dagoela azpiegitura horren inguruan, "ziurrenik inork ez dugu hau nahi, baina zorritzarekin behar ditugu energia berriztagarriak. Hori da egin behar dugun ariketa. Ezin dugu esan 'energia berriztagarriak bai, baina nire herrian ez badira'. Postura hori ezin dugu eduki, ez udal batek eta ez herritarrek. Horregatik uste dugu prozesuak abiatu behar ditugula, herrian bertan gaiak hitz egiteko, jendea kontzientziazteko, informazioa edukitze... Eta horren harira, hainbat erabaki, ildo eta iritzi eraiki, bakoitzak berea. Gaur egun ez ditugu proiektuak zehatz-mehatz ezagutzen. Kezka sortzen dute, noski, baina ezin dugu esan alde edo kontra gauden, ezagutu gabe. Afekzioak izango ditu, zalantzarik gabe. Zenbaterainokoak diren, sarbideak argi eta garbi non izango lirakekeen, zein kalte eragingo lituzketen... Proiektua aurkeztean jakingo dugu".

Aranoko mendietan, bigarren proiektua

Urumea bailaran bigarren proiektu eoliko baten berri izan da azkenaldian, Mandoegi-Adarra mendi-lerro inguruan kokatuko litzatekeena, Arano, Hernani, Goizueta eta Berastegiko udalerrietako mendi-lurretan hain zuzen. Nafarroako proiektu jasangaitzei erantzun juridikoteknikoa ematea helburu duen Sustrai Erakuntza Fundazioak 2023ko apirilaren 19an zabaldu zuen lehenbiziko berria, esanez "Goizueta, Arano eta Hernani arteko trianguluan tamaina handiko poligono eoliko bat jartzeko asmoa" zegoela, eta hain zuzen, Repsol enpresaren menpeko —>



Pagalegi Garagartza mendilerroa. Hernani eta Arano bereizten dituen mugan eraikiko litzateke Hernaniko zentral eolikoa. AIURRI



Azkorteko bidean gora, parez pare daude postontzia eta ikurriña. Ezkerrean, Andoain, eta, eskuinera, Oria. AIURRI

Buruntza mendian hiru haize-errotak jartzeko egitasmoa ezagutu berri da

Gipuzkoako Aldizkari Ofizialak agitaratu zuen egitasmoa, astelehenean: Buruntza mendian, hiru haize-errotako zentral eolikoa egiteko aurretiazko baimen administratiboa eskatu duela Mendiko Haize delako enpresak. Orotara, hamabost megawatteko potentzia izango luke. Horixe da agerkari ofiziala irakurrita zabaldu den informazio apurra. Hortik aurrera

informazio gehiagoren berri ez da izan. Albistea zabaldu zenetik, interes bizia piztu du gaiak eskualdean. Izan ere, Buruntza mendia Andoainera eta Urnietara estuki lotuta dago. Lurrei erreparatuta, hiru udalerritar iristen da ingurua. Hots, Lasarte-Oriara, Urnietara eta Andoainera.

Gaurkoz, asmo baten berri eman da baina horri loturiko informazioa eskasa da oso.

UDALAREN BALORAZIOA

"1. Andoaingo Udalak informazioa GAO bidez jaso du. 2. Andoaingo Udalak harremanak irekiko ditu proiektuan eragina duten erakunde eta eragileekin. Eskura dugun informazio apurrarekin, ezinezkoa da iritzi sendorik eraikitzea. 3. Proiektuaren berri izatean, informazio guztia herritarren esku jarriko da".



Urriar bilera egin zuten Goizuetan eta bertan izan ziren Aranoko herritarrak. AIURRI

→ FE Energy izeneko aholkularitza-enpresa bat Madrilen 100 Mwko megaproiektu eoliko bat izapidetzen ari zela. Era horretan, antzeko azpiegiturarik handiena izango litzateke Euskal Herrian. Gaineratu zuenez, “bai proiektuaren dimentsioengatik (50 Mw gainditzen du), bai autonomia-erkidego desberdinei eragiten dielako, Espainiako Gobernutik egiten ari dira tramitazioak”.

Sustrai elkarteak iragarri zuena, 2024ko uztailean baieztatu ahal izan zen, egitasmoa. Izan ere, FE Energy-ko ordezkariak Aranoko Udalarekin harremanetan jarri dira behin baino gehiagotan. Proiektuarekiko duten interesa azaltzeaz gain, ingurumen-inpaktuaren azterketa egiteko, “TAXUS Estudios Ambientales” enpresa kontratatua dutela adierazi zieten. 99 Mw potentziako makroproiektuarekin, ia 200 metro altuerako eta 14 bat aire-sorgailu ezartzea aurreikusten dira.

Aranoko Udala eta herritarrak haserre daude

110 biztanle dituen eta 440 metroko garaieran dagoen Aranoko Udala hasieratik agertu da egitasmoaren aurk. Era berean, hainbat herritarrek taldea osatu dute informazioa jasotzeko eta Aranoko inguru naturala defendatzeko asmoz. Taldeko kiden den Erramun Galparsorok *Ttípi-Ttapa* aldizkariari urriaren

MANDOEGI-ADARRAKO EUSKAL HERRIKO EGITASMO HANDIENETARIKOA LITZATEKE



Hernani Burujabe ekimenak berriki antolatu duen solasaldia. AIURRI

20an adierazi zionez, “jarrera lotsagarria” eduki zuten Aranora hurbildu ziren kontsultoriako ordezkariak: “Presioa egin eta proiektua onartzearen truke era guztietako konpentsazio ekonomikoak eskaintzera heldu ziren”. Zein dimentsioko egitasmoa den ere azaldu zuen Galparsorok: “205 metroko altuerako eta 6,6 Mwko haize-sorgailuez hitz egiten ari gara. Berastegin dorre bat, Goizuetan bi dorre, Hernanin bederati eta Aranon lau, bost, sei edo zazpi dorre jartzea aurreikusten dute. Udalekoekin bildutakoan ere hala esan omen zuten”.

Tramitazioa Estatuaren esku-menekoa da, dimentsioengatik eta bi autonomia erkidegori eragiten dielako. Azken hitza, beraz, Madrilek izango du. Beldur da Galparsoro proiektu handienak bizkortzeko erabil dezaketzen urtegiak zuzendutako prozedurarekin: “20/2022 Errege Dekretua indarrean jarrita egin dezakete. Horrek, parte hartze publikorik egin gabe eta ingurumen inpaktuaren ebaluazioko prozesua ezabatuta, aurrera egiteko aukera ematen die”.

Aranoko herriarentzat eta bere naturarentzat eragin kaltegarria izango lukeela uste du herritar taldeak: “Txikizioa izugarria litzateke, mendia industrializatu, porlanez bete eta inpaktu larria eragin. Gure herriaren bereizgarri diren natura, paisaia, ondarea, osasuna erabat sunsituduko litzateke. Herriaren bizi-raupena kolokan legoke”.

Aranon, herritarren artean kontrako erreakzioa sortu dela eta, Galparsorok dio ez daude geldirik egoteko prest: “Proiektua geldiarazteko gure esku dagoen guztia egingen dugu. Badakigu Udalak lehenbiziko bilera horretan ezetz esan ziola enpresari; ordaindu beharreko prezioa altuegia zela. Herritarren artean ere kontrako jarrera nabari dugu. Orain, proiektuari kontra egiteko zirrikitu posible guztiak bilatu behar ditugu. Aranzadi Zientzia elkartera jo dugu gure herrian dugin balio ekologikoa eta arkeologikoa jasotzeko, ingurugiroan izan lukeen inpaktua neurtu nahi dugu... Proiektuak aurrera egingen balu, alegazioen garaia iristen denerako prest egotea da gure asmoa”.



Aritz Otxandiano eta Alain Arruti, Hernanin antolatu zen solasaldian. AIURRI

Ñabardurak, eolikoan aferan

Energia eolikoaren gaia biziki ari da pizten Urumea aldeko herritarren interesa, eta horren adierazle da Hernani Burujabe ekimenak azaroaren 28an antolatu zuen solasaldia Sandiusterriko aretoan, Alain Arruti Euskal Herria Bizirik taldeko kidearekin eta Aritz Otxandiano Otxandioko energia komunitateko kidearekin. Urumeako proiektu eolikoak testuinguruan jartzeko asmoz, mundu mailako energia politika izan zuten hizpide, eta horrekin, lotuta, energia berriztagarriak, zentral eolikoak, multinazionalak, larrialdi klimatikoa, desazkundea, ondare naturala, energia burujabetza... Bat egin zuten krisi klimatikoari erantzuteko orduan larrialdizko neurriak hartu behar direla aldarrikatzean, baina, nork bere bidea hartu zuen zehazterakoan zeintzuk diren neurri horiek. Besteak beste, Otxandianok energia iturri berriztagarrietarako trantsizioa defendatu zuen, hori bai, ez edozein baldintzapean, prozesu horretan herritarrek hasieratik erabakitzeko ahalmena edukita. Energia iturri berriztagarri bakoitzak iturri fosil bat ordezkatzeko duela gaineratu zuen. Nafarroa nabarmendu zuen alde horretatik, berriztagarriek esker kontsumitzen den energia gehiena bertan ekoizten delako. Arrutik, estrategia energetikoa baino gehiago politikoaren premia dagoela, eta bide horretatik abiatzeko borondate gutxi dagoela azpimarratu zuen. Estrukturazko plangintza estrategikorik gabe, zalantzan jarri zuen zenbateko transzendentzia izan dezaketen proiektu eoliko lokalek. Alde horretatik, ez zuen bideragarri ikusten proiektu eolikoan alde apustua egitea.

“Arano ezagutu gabe etorri ziren proiektua egitera”

Joan zen urriaren 24an Urumea bailarako haize-sorgailuen gaineko hitzaldia antolatu zuten Goizuetan. Bertan hitza hartu zuten Aranoko herritarrek, Mikel Alvarez makroproiektuen aurkako ekintzailearekin eta Malerreka Bizirik kolektiboko partaideekin batera. Aranoko ordezkariak baieztatu zuten, proiektuen bultzatzaileek konpentsazio ekonomikoak agindu dizkiote Udalari, hala nola, pilotalekua estaltzea edota eskola berritzea... Baina, antza, udal erakundeak ezezkoarekin erantzun die, aldiro-aldiro. Bestalde, Urumea bailarako herrietako hainbat herritarrek “Urumeako Mendiak Bizirik” plataforma sortu berri dutela ere

iragarri zuten. Joxan Ruiz Aranoko alkateak *Kronika* egunkariari azaroaren 16an aitortu zionez, “Arano ezagutu gabe etorri ziren proiektua egitera, hala aitortu ziguten. Lortzen dute 'engantxe' bat, eta horren inguruan koadrante bat marrazten dute, haize-sorgailuak jartzeko. Gertuenetik urrunenera joaten dira, eta eremu babestuekin edo ezegokiek egiten dute topo. Eta horrela iritsi ziren Arano ondora. Hemen jarri nahi dute, ezin dutelako beste tokietan; baina berdin zaie non tokiatzen den eta nor bizi den hemen. Sentitzen dugu ez gaudela babestuta, inondik inora. Estazio megalitikoak dauzkagu hemen, eta gain-gainean jarri nahi dituzte haize-errotak. Ez dauka zentzurik”.

IN MEMORIAM

INES LEKUONA AIZPURUA ANDOAINGO ZUMEA KALEKO ERNAITZA LIBURUDENDA

Dendari ezaguna, Andoain aldean

1932an sortua, astelehen gauean zendu zen Ines Lekuona Aizpurua. Mari Kruz ahizparekin batera, Zumea kaleko Ernaitza liburu-dendako jardunagatik ezaguna egin zen Andoainen. Urrutira joan gabe, aurreko azaroaren 9an, Garikoitz ilobarekin eta Mari Kruz ahizparekin batera, Larramendi Bazkunak Goikoplazan antolatu zuen Gastronomia eta Artisanuaz azokan izan zen.

1976an ireki zuten Ernaitza liburu-denda. Aiurriri egindako elkarrizketan lehen urte haiek gogoratu zituzten bi ahizpek. "1976az geroztik gurasoak, eta horien seme-alabak pasatzen dira gure dendatik; bilobek ere laster ikasten dute guruerako bidea. Zenbat zahartu garen pentsarazten dizu horrek, batetik, baina, bestetik, pozgarria dela iruditzen zaizu, bezero fidelak izan ditugula beti esan nahi baitu horrek", zioen Mari Kruzek. "Eskerrak jende ona topatu izan dugun beti, horri esker egin dugu aurrera!", gaineratu zuen Inesek ondotik. Liburu-denda jendearen topaleku izaten zen, eta da: "Kontuak aditzen



Ines Lekuona, 2014an. AIURRI

ditugu eta kontuak esaten", zioen Inesek. "Konfesionarioa bihurtzen da maiz", gaineratu zioen Mari Kruzek.

Hainbat aitortza jaso dituzte 2016an, Ines Lekuonak Andoaingo Caritasen aitortza jaso zuen urte luzez boluntario lanetan aritzeagatik.

Inesek eta Mari Kruzek aitortza gehiago jaso dituzte iraganean. 2015ean, esaterako, Santa Krutz jaietako txupina bota zuten auzoko dendariekin batera. Eta 2014ko martxoaren 8ko kalejiran ere omendu zituzten.



Andoainen bildutakoa. UDALA

Andoainen bildutako laguntza Valentziako Torrentera iritsi da

Abenduaren 9an Andoaindik abiatu zen boluntario-taldea, Valentzia aldera. Asteotan Andoaingo Udala lanean aritu da Andoainen jasotakoa Valentziara bideratu ahal izateko, "baina ez da lan erraza izan, bertako arduradunak gaindituta egon baitira jasotako elkartasun guztia bideratzen. Bolondresak Torrente udalerriraino eramango dituzte, behar gehien duten herritarren artean banatu ditzaten". Udal gobernuak eskertu egin du herriki-deen elkartasuna: "Eskerrak asko andoaindar guztiei, egindako dohaintzagatik eta, nola ez, boluntarioei, ezinbestekoa izan baita hartu duten lan guztiagatik".

Partaidetzazko aurrekontuak, beste modu batera

Azken urteotan Andoainen ezagututako aurrekontu parte-hartzaileen edizio berririk ez da izango

Erredakzioa ANDOAIN

Azken hiru urteotan abia jarritako aurrekontu parte-hartzaileen edizio berririk ez da izango Andoainen. Ez behintzat, orain arte martxan izan den formularekin. Erabaki horren ondorioz, PSE-EEK kritika luzatu dio gobernu ardurak dituen EH Bilduri: "EH Bilduk prozesu parte-hartzaile bat hiltzen utzi du. Prozesu hori 2021ean eta 2022an jarri zuen abian PSE-EEK, herritarren partaidetzarako bideak handitzeko eta herritarren inplikatzeko Andoaini eragiten dioten erabakietan". Gobernu taldeari egotzi dio etenaren errua: "Azken urteotan izandako parte-hartzeak erakutsi digu Andoainen borondate parte-hartzaile badagoela eta inplikazio hori entzun, zaindu eta bideratzeko betebeharrak dugula arduradun politikook, baina zorritzarrez EH Bilduk ez ikusiarrena egitea erabaki du".

EH Bilduren erantzuna

Aiurri astekariak aferaz galdera egin dio Gobernu taldeari. Honatx, erantzuna: "Aurreko sistemak zekartzan zailtasunak ikusita, herritarren partaidetza bideratzeko eraginkorragoa izango den



Artiboko irudia. AIURRI

beste formularen bat aztertzen ari gara. Partaidetzan sinesten dugulako eta agintaldi honetan hori behin eta berriro erakusten ari garelako. Aurreratzen dugu datorren urteko aurrekontuetan proposamena egingo dugula zentzu horretan.

"ERAGINKORRAGOIAZ IZANGO DEN BESTE FORMULAREN BAT" AZTERTZEN ARI DA GOBERNU TALDEA

ZOZKETA

XIBEROAKO IKASTOLEN ALDE

Aiurriko harpidedun izateak saria dakar



Harpidedunen artean SASKIA ZOZKATUKO DUGU.

Parte hartzeko modua:
Idatzi "Xiberoa", zure izen-abizenak eta bidali:
* Whatsapp: 619 163 537
* E-posta: diseinua@aiurri.eus

Saskia

Zuberoako euskararen alde

SASKIA IRABAZI NAHI?

Zozketako irabazlearen berri, datorren Aiurri astekarian emango dugu.

ZUBEROAKO IKASTOLEN ALDE

Euskara hauspotzea, helburu Transmisioa Zuberoan eteten ari den heinean, ikastolek bermatzen dute hori. Gauzak horrela, ikastolei laguntzeko saskiak erosteko kanpaina abiarazi dute. Jakien artean dira xerriki pateak, ahate gibel berrosatua, bixkotx artisaua, gazta, lukainka...

Informazioa: ikaskoli.eus.

Euskararen eguna, ospakizun bilakatuta

Euskararen aldeko aldarriak herriko kaleetan barrena zabaldu zituzten, lasterka, Egape Ikastolako ikasleek, irakasleek zein gurauek, abenduaren 3an. Korrikan egin ohi den moduan, mezu sekretua ere irakurri zuten

Erredakzioa URNIETA

Euskararen aldeko korrikaldia egin zuten Egape Ikastolako ikasleek, irakasleek zein gurauek, Euskararen Nazioarteko Egunean. San Juan plazan hasi eta buka, itzulia eman zioten herriari, lasterka, euskararen aldeko lekukoa eskutik eskura emanaz. Amaieran, udaletxera igo eta mezu sekretua irakurri zuten ikasleek:

“Hasiera batean ez zen erraza izan. Euskara putzu sakon eta ilun bat zen, baina gure arbasoen ahalegin eta dedikazioari esker, argira atera dugu. Ez dizkiogu gure txantxangorriari hegoak ebaki behar, hegan egiteari utz ez diezaion. Euskaraz bizitzeak gure nortasuna indartzen du eta gure historia eta kultura bizirik mantentzen ditu.

Euskararen herria ez da amets bat bakarrik. Euskara da euskaldun egiten gaituena eta Eus-

kal Herri egiten duena. Herrian, kalean, eta tabernetan, euskararen aldeko jarrera sustatu behar da; izan ere, geure arima hiltzen uzteko bezain odolgalduak ez gara.

Gure hizkuntza, gure ametsak eta gure ilusioak batera eginez, etorkizun hobe bat eraiki dezakegu. Euskaraz bizi eta euskaraz amestu, gure herriaren eta hizkuntzaren alde lan eginez. Guztion artean, egunero euskaraz aritu eta euskaraz bizi gaitezen, elkarrekin amets eta ilusio berriak sortuz.

Gaur, abenduaren 3an, euskararen egunean kalera irten gara euskarari merezi duen lekua ematera gure ondarea eta identitatea aldarrikatuz. Euskara baita gure identitatea eta gure arima.

Baina abenduaren 3tik aurrera ere euskaraz bizitzeko lanean jarraituko dugu. Bada garaia

noizbait dezagun guda hori irabaz. Bizi euskara, sentitu euskara, maitatu euskara eta borrokatu euskararen alde. Euskaraz bizi nahi dugulako, gau eta egun, eskolan eta kalean, lanean zein etxean”.

Azaroa, euskaraz barra-barra

“Zein polita den zu euskaraz entzutea” lelo pean, euskararen aldeko makina bat hitzorduz josi zuten azaroa Egape Ikastolan, abenduaren 3a iritsi aurretik: abestien kiniela, HH eta LHko ikasleen arteko topaketak, bingo musikala edota Egapeokea. Azken jardun hori, azaroaren 29ko arratsaldean, herriko lau plazatan banatuta egin zuten. Azaroaren 30ean, berriz, Aballarri guraso elkarteak antolatuta, kartel-margoketa egin zuten, herriko txoko guztiak egunerako espresuki prestatutako leloarekin betetzeko.



Korrika antolatu zuen Egapeko hezkuntza-komunitetak herrian. AIURRI



Ikasleak, Zaldundegi alboko plazan, lekukoa noiz iritsiko zain. AIURRI

AEK eta Kantazaun elkarrekin, kantujiran

Kaleak hartu zituzten elkarrekin Kantazaunek eta AEK euskaltegiak, Euskararen Nazioarteko Egunean. Arratsaldeko 18:00tan egin zuten hitzordua Kontzejupean, euritik ihesi. Hala, euskal kantutegiko abesti entzutetsuak abestu zituzten, bai eta, bide batez, Lanarteak egunerako espresuki zabaldutako manifestua entzun ere. Jarraian "Euskararen Kalejira" egin zuten euskaltegiko ikasleek zein irakasleek, herrian barrena.





Begoña Tolaretxipi eta familiaren agerpena gogoangarria izan zen. Taldeko argazkia egin zuten senitartekoez, protagonistarekin. AIURRI

Larramendi Bazkunaren jaialdia, gogoangarria

XX. mendean Euskal Herrian eta Andoainen bizi izandako historia sozialaren kontakizun ikusgarria egin zuen Larramendi Bazkunak, Bastero Kulturgunean. Amaia Elizondok eta Ainhoa Aiertzak aurkeztuta, eragile ugari igo zen oholtzara

Xabier Lasa ANDOAIN

"Andoaingo Euskera, Bihotzetik Kalera!" jaialdi apartaz gozatu ahal izan zuten Bastero Kulturguneko auditoriora hurbildu ziren ikusleek. XX. mendean Euskal Herrian eta Andoainen bizi izandako historia sozialaren kontakizun ikusgarria izan zen, finean. Manuel Larramendi Bazkuna elkarteak izan da ikuskizuz-

naren bultzatzailea, xede argiarenekin: egoitza berria eskuratzea.

Partaide ugari oholtsa gainean

Lizar Makil Dantza Taldea, Olagain Udal Txistulari Elkarteak, Urki Dantza Taldea, Amaia Elizondo eta Urtzi Ugalde aktoreak, Rebeka Gestoso abeslaria eta Susana Cencillo akordeo-jolea, Iñaki Eizmendi eta Ramon Be-

raza kantariak, Maizorri Txalaparta eskolako Juan Godoy eta Jon Urtasun, Ane Amutxastegi pandero-jolea eta abeslaria eta Eneritz Jauregi trikitilaria eta abeslaria, Iratxo musika taldea, Jon Unanue, Kontxi Arin eta Iñaki Arregi abeslariak, Esti Mujika piano-jolea, Begoña Tolaretxipi piano-jolea eta Mujika Tolaretxipi familia.



Juanita Alkain eta Martin Ugalde biziberritu zituzten Bastero Kulturgunean. AIURRI



Larramendi Bazkunak Lizar Makil dantza-taldeko kide ugari elkartzea lortu zuen. AIURRI

www.aiurri.eus

AIURRI
BETERRI-BURUNTZAKO ASTEKARIA



Jaialdia,
piezaz pieza,
ikusgai



Aukeran Dantza Konpainiako kideak ikuskizun berriena sustatu duten eragileekin batera, Victoria Eugenia antzokian. DAVID HERRANZ

“Etengabeko aldaketan dago jendarteak, horrela behar dute ikuskizunek ere”

EDU MURUAMENDIARAZ AUKERAN DANTZA KONPAINIA

Dantza, musika, maskarak, antzerkia... Arte eszenikoen askotariko baliabideak erabilia ondu dute “Amama” ikuskizuna. Saroben izango dira, hilaren 15ean, 17:30ean hasita

Alba Cabrera Jauregi URNIETA

Haurren munduan murgildu da, lehen aldiz, Aukeran Dantza Konpainia, labetik atera berri duen “Amama” ikuskizunarekin. Victoria Eugenia antzokian estreinatuta zuten hilaren lehenean. Bada, biharamunean egin zuen hitzordua Muruamendiarazekin Aiurri astekariak, ikuskizunaren nondik norakoak ezagutzeko. Etxean izango dira, igande ho-

netan, Sarobe arte eszenikoen gunean. Orain pare bat aste agortu ziren sarrerak.

Abenduaren lehenean estreinatuta zuten Victoria Eugenia “Amama” ikuskizuna. Urduritasunak baretuta, jada?

Lasaitu? Ez naiz lasaitzen sekula, horrelakoa naiz (barreak)! Aje emoziona. handia sentitu dugu emanaldiaren ondorengo egunotan. Bi emanaldi izan di-

tugu asteburuan, elkarren artean zeharo ezberdinak, biak ala biak oso antzoki garrantzitsuan, Donostiako Victoria Eugenia. Lehen eginda izango dira, ziur asko, dantzariak. Maila profesionala dugu, eta oso esijenteak gara. Lur hartzen ari gara estreinalditik.

Adin-tarte guztientzat eginiko ikuskizuna izan arren, haurrengan ipini duzue zuek arreta, bereziki. Hori

berria da Aukeran Dantza Konpainiarentzat.

Familia-ikuskizun bat egiteko proposamena luzatu zidan Aitor Narbaizak, gure burbuilatik atera eta zeharo bestelako den emanaldia egiteko, izan ere, Aukeranez ez du inoiz publiko horrentzat lanik egin. “Nola sartuko gara horretan?”, izan zen nire lehen erreakzioa. Baina, pare bat aldiz gehiago pentsatu ostean, baiezkoa eman nion. “Zergatik ez ditugu ipunak kontatzen, dantzaren bidez?”, aipatu zidan hark. Oso ideia polita zen, horixe da proiektu honen hasiera.

Hala, genituen premiak mahai-gaineratzea izan zen lehen pausua: dantza-konpainia baguenen, Aukeran. Orduan, kontatu nahi genituen istorioak kontatu ahal izateko falta zitzaizkigun osagaien bila abiatu ginen.

Jende asko ari da lan handia egiten. Oso pozik nago dantzariak egiten ari diren ahaleginarekin. Eta beraientzat ere inportantea da jende profesionalarekin lan egitea.

Elementu guztiak zein trantsizioak lotzea izan da txarrena. Dena dela, guztien arten, pixkanaka, josi dugu proiektua eta jende gaztearen artean dantzarako grina sustatzeko xedea ere badu ikuskizunak. Bizi dugun estimulu-jasa horren aurrean, ipuinaren bidez, dantzaren munduan murgildu ahal izatea... Niretzat, horrekin, jada, asko lortu dugu. Haurren munduan

sartu gara, baina errazkerian erori gabe.

Ezin da aurretik sortu ditugun ikuskizunekin alderatu. Orain arte egin duguna oso ondo dakigu egiten. Erresgistroz aldatu dugu emanaldi honetan. Etengabeko aldaketan dago jendarteak, horrela behar dute emanaldiek ere.

Zuek, dantza. Igerabidek, testua. Eta, musika, Joxean Goikoetxeak. Nolako izan da Juan kruz Igerabideren hitzak dantzagarri bihurtzeko prozesua?

Bere garaian, Oinkarin nengoen, Igerabidek egindako idatzi bat dantzaz kontatzea egokitu zitzaidan niri. Aspaldiko kontu horren harira nuen harremana, ez sakona. Proiektuaren berri eman genion eta oso ideia polita iruditu zitzaion, bere ipuinak dantzaren bidez taularatzea. Bestalde, aspaldi-aspalditik ezagutzen dut Goikotxea, eta ez dugu elkarrekin lan egin inoiz, Aukeran dantza konpainiaren harira. Deitu bezala, baiezkoa eman zigun. Gainera, ezaguna du Igerabide bera. Horrela, errazagoa zen beraientzat lan egitea. Beraz, pixkanaka, borobiltzen joan ginen ikuskizuna ontzeko behar genituen elementuak.

Zentzu bat eman behar genion sorkuntzari. Euskal Herriko ipuinak dira, herrialde bakoitzeko bana. Igerabidek aukeratu zituen horiek. Tokian tokira egokitutako pausuak eta doinuak ditu ipuin bakoitzak. Adibidez,

Ataunen dago kokatua Gipuzkoako ipuina; bada, banekien zein pauso izan behar zituen oinarrian gure dantzak. Ezagunak ditu pausuak zein erritmoak Joxeanek eta belarri finekoa da. Bitxikeria moduan, kasualitatez, orain dela mende laurden kaxoian gordetako pieza bat atera zuen Joxeanek; hala, fandango hori ipini dugu, emanaldiari amaiera emateko. Dena dela, guretzat oso zaila izan da, batzuetan, Nafarroako pausu tradizionalak erabiliaz, esaterako, ipuina kontatu ahal izatea.

Bestalde, guekin aritzen dira beti lanean Oscar Armendariz eta Carlos Solano. Jantziak eramaten ditu lehenak; argiztapendiseinua, bigarrenak. Alderdi horretan, segurtasuna bagenuen, urte pila daramagulako elkarrekin. Armendarizen kasuan, ipuinak ikusi behar izan zituen jantzien iruditeria pentsatzeko. Diseinu xumea nahi genuen, baina zertzelada bereziekin.

Gainera, inoiz baino jostariago ageri dira dantzariak oholta gainean.

Eta hori obra baten estreinua ez dela izaten, normalean, egun onena. Gu bakarrik egon gara lanean, kanpoko begirada handirik gabe. "Zer esango ote du jendeak?", hori zen gure zalantza nagusia estreinaldiaren egunean. Hala, oso urduri ginen ikuskizuna begi onez hartu zela ikusi arte. Oso mugimendu konplexuak egiten dituzte obran; bada, hemendik hilabete batzutura, zorroztuago izango dugu. Eta ez diot koreografiaren aldetik, dantzariaren oholta egoteko modua-rengatik baizik. Geroz eta bereago sentituko dute lana. Aldaketak beti egongo dira, zurruntasunetik harago, aldaketek mantentzen dutelako ikuskizuna bizirik.

Aipatu moduan, arte eszenikoaren beste diziplina batzuekin ere aritu zarete oholta gainean. Adibidez, aktore-lanetan aritzen dira dantzariak ikuskizunean. Ahalegin bikoitza eskatzen die horrek?

Beharrezkoa genuen zuzendari artistiko baten begirada, eta antzerki mundutik datorren Elena Bezanilla izan dugu gidari, familia-ikuskizunetan

"EUSKAL HERRIKO IPUINAK DIRA, HERRIALDE BAKOITZEKO BANA"

esperientzia du, gainera. Izugarrizko lana egin du ipuinetako testuak gure obrara ekartzeko. Amama ez ezik, bilobaren rola ere agertu behar zen ikuskizunean. "Zergatik ez jarri dantzariak?", bota zuen galdera gutako batek. Entsegu batean, proposamen haiei luzatu eta, "beno, bale", jaso genuen erantzun moduan. Horrela hasi zen dena. Elenarekin egin dute lan, nirea ez delako mundu hori. Hark ipuinetan kontatutako guztia agertzea nahi zuen, dantza, ordea, malguagoa da, interpretazioari tokia egiten zaio. Esaldien entonazioa, ahotsaren proiektzioa... Ezezaguna zen hori dantzariarentzat, konplexua. Burbuilatik atera gara, ausartak izan gara alde horretatik.

Maskarak ere txertatu nahi genituen, Valentina Raposoren eskutik. Ekain partean etorri zen eta ordura arte muntatua genuena erakutsi genion, horren gainean maskarak sortzeko. Aldaketak etorri dira ikuskizun honetan, eta dantzariak badiutuzte erramintak horiei erantzuteko. "Dragoiaren bidea ikusi dut... Ez dut gustuko nola mugitzen duzuen", esan zigun, behin Valentinak. Horrela, ordu pila egon ginen herensugeari bizia ematen, dantzariak herensugaren begietatik egin ditzaten mugimenduak.

Eta dantzariaren alboan, ezin aipatu gabe utzi, kontakizunaren bizkarrezurra den amama, Loli Astoreka. Jakina. Emanaldia bideratzeko gidaria behar genuen, amama. Oso laguna dut Loli, eta ez ginen lehenago sekula lanean elkarrekin aritu. Orain 30 urte-edo, Bizkaiko Foru Aldundiaren bidez, Japoniara joan ginen. Oso harreman estua egin genuen orduan. Deitu bezala, poz handia hartu zuen.

Atzeko irudiek ere ipuin bakoitzaren atmosferan hobeto kokatzen laguntzen dute.

Eszena osatzen laguntzen dute ilustrazioek. Antonio Alfasekin lan egindakoa da Aitor, eta ondo baino hobeto murgildu zen gure lantaldean. Ikusi zituen ipuinak, ikusi zuen *work in progress*-a eta, urria iritsi baino lehen, jada, ilustrazioak genituen.

Uda sasoiaren sormen-prozesua agerian jarri eta entseguko atek ireki zenizkieten urnietarrei. Orduztik asko aldatu al du formaz emanaldiak?



"Diseinu xumea nahi genuen, baina zertzelada bereziekin", dio Muruamendiarezek. DAVID HERRANZ



Larunbat honetan Saroben ariko dira eta ikuskizunaz gozatzeko sarrerak aspaldi agortu ziren. DAVID HERRANZ

Ekainaren amaieran izan zen hori. Dena aldatu da. Ekainean ikusitakoarekin alderatuta, ez du zerikusiri handirik. Ordura arte montatutako dantza guztiek izan dute garapena, irudirik ez genuen, jantziak aldatu dira, orain amamak badaki zer den kontatu behar duena, bere kon-

"AMAMA EZIN DA AURRETIK SORTU DITUGUN IKUSKIZUNEKIN ALDERATU"

takizunak entzungo dituen biloba dauka... Guztiak izan du bilakaera.

Urnieta izango da "Amama"-ren hurrengo geltokia, hilaren 15ean. Etxetat daukazue Sarobe. Lasaitasuna ematen du horrek ala urduritasuna areagotu?

Aipatu bezala, beti jartzen naiz urduri, nagoen tokian nagoela. Pozik gaude, gure egoitza delako eta jarraitzaile mordoxka daukagulako. Era berean, abenduaren 21ean, San Tomas egunean, eguerdiko 12:00tan, lehen aldiz "Aiurri" ikuskizuna egingo dugu, San Juan plazan.

Aurrera begira, zein beste antzoki bisitatuko ditu "Amama" ikuskizunak?

Ezin dizkizut, oraindik, izenak eman, baina, aurreratu dezaket, datorren urteari begira, jada, dozena bat udaletzek hartu dutela ikuskizuna. Gure asmoa ikuskizunarekin bidea egitea da.

"IKUSKIZUN HONETAN DANTZARIEK BADITUZTE ALDAKETEI ERANTZUTEKO ERRAMINTAK"

Bulegok sortu du Euskaraldiaren kantua

BULEGO TALDEA KANTU BERRIA AURKEZTU DUTE DURANGOKO AZOKAN Euskaraldiaren atarian, Youtuben edota Aiurri.eus webgunean ikusgai eta entzungai dago talde ezagunaren kantu berria, Euskaraldiarekin lotura estua duena



Ruben Lizarralde, Tomas Lizarazu eta Xabier Arrieta Bulego taldeko kideak. GUKA/TOKIKOM

TOKIKOM komunitatea GUKA TOKIKO HEDABIDEA

2025eko maiatzaren 15etik 25era egingo duten Euskaraldiaren abestia sortu du Azkoitiko Bulego taldeak, eta Durangoko Azokan aurkeztuko zuten bideo-klipa. Kantu "dantzagarria" sortu dute. Dantzagarria eta alaia; taldearen zigilua daramana, finean. Horrela deskriba daiteke Azkoitiko Bulego taldeak Euskaraldirako sortu duen Gure bihotzaren taupadak abestia. Tomas Lizarazu (Azkoitia, 1993), Ruben Lizarralde (Azkoitia, 1970) eta Xabier Arrieta (Azkoitia, 1994) taldekideek gaur aurkeztuko dute bideo-klipa, Durangoko Azokan.

Hurrengo Euskaraldiak zuen doinua izango du. Zer nahi izan duzue transmititu?

Tomas Lizarazu: Garrantzitsua zen guretzat Euskaraldiarekin bat egiten zuen abestia sortzea. Orain arte abestiak sortu ditugunean, barrura begira egin ditugu; hau da, konposatzaile eta kanta idazle moduan, aurrez gertatu izan zaizkidan gauzetatik tiraka sortu izan ditut kantuak, eta oraingo honetan kanpotik iritsi zaigu

abestia egiteko eskaera. Euskaraldian parte hartuko duen edozeinentzat izango den abestia egiten saiatu gara: kantu herrikoa eta alaia. Sustatzaileen leloa da herritarrek esatetik egitera igarotzea, eta horretara bultzatzen du gure abestiak ere; herritarrek euskaraz aritzeko, lehenengo hitza euskaraz egiteko eta elkarrizketa elebidunear euskarari eusteko gogoia ematen duen abestia egiten ahalegindu gara.

Mezu zehatzik ba al du?

T. L.: Herritarrek euskararekin bat egitea da funtsean dagoena. Bakoitzak jar dezakeen alea jarrita, euskararen egoera orokorra alda daitekeela erakutsarazi nahi dugu. Uste dugu hor dagoela gakoa; kontua ez da ekitaldi edo egitasmo handi bat antolatuta euskara alda dezakegula sinestea, eguneroko elkarrizketetan dago euskararen egoera, eta abestiarekin jendea bultzatu nahi dugu bere egunerokotasunean ale txiki bat jartzera.

Euskaraldiaren abestia izanik, desberdina izan al da sortze prozesua?

T. L.: Bai. Orain arte, barrura begira konposatu izan dugu,

sentimenduetatik eta gertatu zaizkigun bizipenetatik tiraka, baina oraingo honetan, abestia egitea kanpotik iritsitako eskaera izan da. Euskaraldiakoak jarri ziren gurekin harremanetan, eta datorren aldirako abestia egingo al genuen galdetu izan baiezkoa emateko, Bulego euskararekin oso lotuta dagoen proiektua delako. Naturalki ateratzen zaigu euskara, azkoitiarrak garelako eta gure artean euskaraz bizi garelako. Baina iruditzen zitzaigun gure bozgorailu txikia erabiltzeko ardura genuela euskararen alde egiteko. Kanpotik etorritako estimulari erantzun diogula, hori izan da aldaketa nagusia.

Bulego taldearen zigilua al du abestiak?

Xabier Arrieta: Baietz esango nuke. Abesti alaia da, dantzagarria, eta adin guztietako pertsonentzat egindakoa. Baikorra ere bada, eta uste dut gaur egun behar dugula baikortasuna, jendea euskaraz hitz egitera bultzatzeko eta, behintzat, lehenengo hitza euskaraz egitera animatzeko.



Iruzta hirukotea. TRIKITIXA.EUS

"Haritik" diskoan bildu dituzte trikitilari kimu berriak

Euskal Herriko Trikitixa Elkarteak sustatu du "Haritik" diskoa, cover edo bertsioez osatuta

Erredakzioa URNIETA

Trikitilari gazteen doinuak "Haritik" diskoan bildu ditu Euskal Herriko Trikitixa elkarteak. Aurreko urteetan egin bezala, Cover lehiaketan parte hartu duten hainbat talderen kantak bildu dituzte. Haren berri eman dute, berriki, Durangoko Azokan ipinitako postuan. Partaideen artea, bada, Beterri-Buruntzako eta Aiztondoko musikari gazteak aurki daitezke. Diskoa erosteko aukera dago trikitixa@trikitixa.eus e-postara idatzita.

Partaide guztien artetik bi talde nabamendu ditugu.

Ai Ama! taldea

Gaztetxoak dira, hainbat herri-takoak: Hernani, Urnieta, Villabona, Aduna eta Tolosa. Partaideak: Liher Yarza Bengoetxea, Aner Elgarresta Aramendi, Ander Lertxundi Iturbe; Xuban Ugalde Labaka, Mikel Lertxundi Ariztegi eta Ekhi Barrenetxea Solano.

Iruzta taldea

Urnietarrez eta hernaniarrez osaturik dago hirukotea. Partaideak: Jone Izagirre Goenaga, Enara Donavera Garcia eta Malen Barrenetxea Solano.



Ai ama! taldeko partaideak. TRIKITIXA.EUS



Nerea Elustondo berriki izan da Andoainen, kantuan, Gainerakoan, Leizaran institutuko irakasle da. BERTSOZALE

Gipuzkoako Bertsolari Txapelketako finala, igandean

Illunben bertan ikusteko aukera dago, eta bestela Euskal Telebistak zuzenean emitituko du finala

Erredakzioa ANDOAIN

Larunbat honetan jokatu da Gipuzkoako Bertsolari Txapelketako finala. Honako hauen artean jokatu da txapelketa: Beñat Gaztelumendi, Alaia Martin, Oihana Iguaran, Ane Labaka, Nerea Elustondo, Eneritz Artetxe, Andoni Rekondo eta Aner Peritz Manterola 'Euzkitze'.

Antolatzaileen oharrak

- Sarrerak: bertsosarrerak.eus atarian egongo dira eskuragai. Egunean bertan, sarrerarik geratuko balitz, txarteldegia zabalduko da, 14:30ean.
- Haur txokoa: Saioa jokatzeko ari diren bitartean, hezitzaileek zainduko dute gunea. Bertso saioak irauten duen artean egongo da gunea zabalik, hezitzaileek zainduta. Informazio gehiago: 688 72 85 75 / gipuzkoakotxapelketa@bertsozale.eus.

- Ilunbera nola heldu: Garraio publikoak eskaintzen dituen ohiko bideak erabiltzea gomendatzen du antolakuntzak. Bestalde, Andoaingo Punttukak antolatu du busa Andoaindik. 15:15etan abiatuko da Makaldegitik. Dena den, autoen aparkalekua ere egongo da.
- Ateen irekiera: Ilunbeto atek 15:30ean zabalduko dira. Bertsozale Elkarteak garaiz joateko gomendioa egin nahi die bertsozaleei, azken orduan trabarik ez egoteko.
- Gurpildun aulkia: Gurpildun aulkian datozen bertsozaleek zein irisgarritasun beharrak dituztenek, aurretiaz antolakuntzari jakinaraziz gero, nondik sartzea komeni den adierazten duten oharrak jasoko dituzte. Horretarako gipuzkoakotxapelketa@bertsozale.eus helbidera idatz daiteke.

Datorren astean banatuko dute Udal egutegia

Abenduaren 16an, astelehenarekin, 2025eko Udal Egutegia osatzeko argazki lehiaketaren sari-banaketa ekitaldia izango da Udal Artxiboan, arratsaldeko 18:30ean hasita. Abenduaren 17tik aurrera herritarrek eskuratu ahal izango dute, Salkinen egoitzan

Erredakzioa ANDOAIN

Andoaingo Udal Egutegia herritarrek eta, bereziki, gustu handiko argazkilariek osatzen dute. Interes handia pizten du egutegiak, gainera, herrikideen artean. Izan ere, Udalak argitara ematen duen paperezko edizioa azkar batean agortzen da. Bi hitzordu iragarri ditu Udalak, datorren asterako.

Abenduak 16, astelehena

Sari-banaketa ekitaldia egingo dute Udal Artxiboan, arratsaldeko 18:30ean hasita.

Abenduak 17, asteartea

Salkin elkartearen egoitzan egutegia banatzeari ekingo diote. Ordu egutegia, honako hau izango da: 10:00etatik 13:00etara, eta ostegunegun goizez eta arratsaldez ere zabalik izango da egoitza, 17:00etatik 19:00etara.

“Mertaritza Andoainen” izan da aurtengo gaia eta irabazleak honako hauek dira:



Jose Angel Amuchastegui sariduna izan zen, 2020ko abenduan. AIURRI

- Urtarrila. Unai Peñalvo.
- Otsaila. Miguel Caverio.
- Martxoa. Jose Miguel Romero.
- Apirila. Imanol Fernandez.
- Maiatza. Nahia Rodiño.
- Ekaina. Juan Pablo Fernandez.
- Uztaila. Ane Jalon.
- Abuztua. Fernando Anza.
- Iraila. Hilario Rodeiro.
- Urria. Julian Guerrero.
- Azaroa. Jose Angel Amuchastegui.
- Abendua. Amparo Alonso.

Aldundikoan eta Udalekoan, bietan protagonista



Jose Angel Amuchasteguiena da egutegiko azaleko argazkia. Andoaingo egutegian ere irabazleetakoa da. IREKIA

Gipuzkoako Foru Aldundiak 2025eko egutegia aurkeztu du, eta haren azala Jose Angel Amuchasteguiaren argazki koloretsu ikusgarriak hartuko du. Aldundikoan eta

Andoaingoan, bietan azalduko da Amuchasteguiaren argazki bana. Aurtun, gainera, Lurraldeko udalerrri guztietara gerturatuko dira Gipuzkoako egutegiak banatzera

Andoainen eta Urnietan ostegun honetan
Andoain: 13:00-14:00. Goikoplaza.
Urnietan: 11:30-12:30. San Juan plaza.



andoaINDARRA
euskaraz



Artxiboko irudia. AIURRI

Andoaingo VIII. San Silbestre lasterketa

LASTERKETA Dagoeneko izena eman daiteke rockthesport.com atari digitalean

Erredakzioa ANDOAIN

Lasterka egiten da, baina ez da ohiko proba. Izan ere, urte amaierakoa jai giroan egiten da. Antolatzaileek gonbita luzatu dute: "Urtero bezala, giro paregabea izango da. Mozorroak ez dira faltako eta, noski, herriko komertzioek eskainitako sariak zozkatuko dira". Dagoeneko izena eman daiteke rockthesport.com atari digitalean, 10 euro ordainduta. Goizeko 11:30ean abiatuko dira eta Andoain barrera bost kilometro pasatxoko ibilbidea egingo dute parte-hartzaileek. 14 urtekoek gurasoen baimena beharko dute. Ikusleak ez dira faltako, bide bazterretan.



Euskalduna taldea denboraldi hasieran ateratako argazkian. AIURRI

Irabazleak lidergotza eskuratuko du

FUTBOLA Lehen postua lortzeko berebiziko partida jokatu da larunbat honetan, arratsaldeko 16:00tan hasita. Gorengo mailako lehen postua dago jokoan: Euskaldunak irabaziz gero, lehen postua kenduko lioke Ubitartera datorren Santo Tomas Lizeoari

Erredakzioa ANDOAIN

Lehia estua darabilte Santo Tomas Lizeoa eta Euskalduna taldeek, Gorengo mailako lehen itzulia amaitzeko jardunaldi gutxiren faltan. Hamaika partida jokatu dira eta, estatistikei erreparatuta, pare pare dabilta biak: zazpina garaipen eskuratu dituzte. Aldea non dago, baina? Batetik, donostiarrek bi berdin-

keta lortu dituzte eta andoaindarrek, berriz, hiru. Bestetik, Santo Tomas Lizeokoak dira gol gutxien jaso duten taldea: 7, besterik ez. Defentsa lan on horri esker goikaldean dira.

Larunbat honetan, arratsaldeko 16:00tan hasita, Euskaldunak etxekoen babes beharko du garaipena eskuratzeko eta lidergotza berreskuratzeko.

Sailkapena

Atzeraturiko partidaren, aurreko asteburuan Euskaldunak 2-3 galdu zuen Oriokoren aurka. Oraingoan irabazteko gogo berezia izango dute.

1. Santo Tomas Lizeoa	24 p.
2. Euskalduna	23 p.
3. Roteta	21 p.
4. Orioko	20 p.
5. Usurbil	18 p.



Kadete mailako jokariak. UKE

Kadete mailako nesken bolada bikaina

ESKUBALOIA Bigarren postuari eutsi diote Eibarren lorturiko garaipenari esker

Erredakzioa URNIETA

Urnietako Iñaki Mecanizados taldeak garaipen garantzitsua eskuratu zuten MEK Eibar Eskubaloia B taldearen kantxan (29-33). Horrela, bigarren postuan darraite, beste aste batez, Gipuzkoako Txapelketako bigarren fasean. Oso aurkari gogorrek egin zuten topo urnietarrek, eibartarrak izan baitziren hasieran nagusi jokoan. Ahaleginaren ahaleginaz, markagailua berdintzea lortu zuten urnietarrek, bai eta aurretik jartzea ere, partidaren azken txanpan. Bilakaera ederra ari da egiten taldea eta, horren erakusle, azken lau partidatan porrotik dastatu ez izana.

Andoaingo kirol lorpenen ekitaldia, abenduaren 20an

HAINBAT Bastero Kulturguneko ekitaldi-aretoan izango da arratsaldeko 19:00tan hasita

Erredakzioa ANDOAIN

2023/24 denboraldian nabarmendu diren kirolarien eta kirol-taldeen lana aitortzeko ekitaldia datorren abenduaren 20an izango da, ostiralarekin, Bastero Kulturguneko ekitaldi aretoan.

Arratsaldeko 19:00tan hasiko da eta Andoaingo Udalak ekitaldi-aretoan hurbiltzeko gonbita luzatu nahi die herrikide guztiei. Ondoren, gainera, mokadua eskainiko da. Ekitaldiaren nondik norakoa iragarri du Andoaingo

Udalak, ohar bidez. Eta herritarrek aukeraketan parte hartzeko aukera izan dutela azpimarratu dute: "Andoainen asko dira kirol lorpenen bat eskuratu dutenak. Nabarmenezkoa da elkartei eta herritarrei eman zaiela aukera haien proposamenak luza zitzaten. Uzta oparoa izan da, lorpen indibidualak ez ezik, taldekakoak ere badira, baita mundu mailan lorpenak izan dituztenak ere. Aipamen berezirik ere ez da faltako ekitaldian."



Euskal Ligan dira, estrainezko, senior mailako Leizaran taldeko mutilak. LEIZARAN



Barrenetxea IV. ORIAMENDI

Azken partida irabazten duenak finala du eskura

ERREMONTA Ezkurra II-Azpiroz eta Seguro-la-Barrenetxea IV. finalerako hautagaiak

Erredakzioa URNIETA Partida bakarra geratzen da lehen faseari amaiera emateko eta azken partida Seguro-la-Barrenetxeak, Ezkurra II.aren eta Azpirozen aurka jokatuko dute. Partida horrek erabakiko du bi bikoteetatik nor igaroko den finalera zuzenean. Galtzailak Urriza eta Larrañaga izango ditu aurkari, datorren abenduaren 21ean jokatuko den finalaurrekoan.

- Ligaxka, sailkapena**
- 1. Ezkurra II-Azpiroz 14 p.
 - 2. Seguro-la-Barrenetxea 13 p.
 - 3. Urriza-Larrañaga 10 p.
 - 4. Ansa II-Juanenea 6 p.



Larunbat honetan Allurralden jokatuko dute, 10:30ean hasita. AIURRI

Garrantzi handiko partida, kadete mailako neskenzat

SASKIBALOIA Ganbara emakumezkoen taldeak sustatzeko lan handia egiten ari da azken urteotan. Talde horietako bat kadete mailakoa da, eta larunbat honetan garrantzi handiko partida jokatuko dute. Errendimenduzko zilarrezko ligan aritzeko buruz burukoa Allurralden izango da, 10:30ean hasita.



EUSKALDUNA

Kadete mailako neskek, Seguran

FUTBOLA Lehen kadete mailako 4. multzoan Segura, Tolosa B eta Euskalduna lehen bi postuak ziurtatzeko lehiari murgilduta daude. Segurarrak lidergotzan dira eta asteburu honetan andoaindarren bisitaldia jasoko dute. Euskaldunak busa antolatu du, taldea animatzera joateko.



Adarramendira irteera Zanpatuz elkarteak antolatu du. AIURRI

Abenduaren 20an, gauez, mendi-irteera Adarramendira

MENDIZALETASUNA Zanpatuzen eskutik egingo dute irteera abenduaren 20an, ostiralarekin. Besabitik abiatuko dira mendizaleak, 18:00tan, baina ahalik eta auto gutxien erabiltzeko, 17:30ean San Juan plazan elkartuko dira. Frontala eta neguko arropa eramatea, antolatzaileen gomendioa.



LEIZARAN

Aurrealdean jarraitu nahi dute

ESKUBALOIA Euskadiko txapelketan atsedenaldea izan zuten aurreko asteburuan. 9. jardunaldia iristear da eta Leizaran Lanbroa taldea Allurralden ariko da Elgoibarren aurka. Une honetan andoaindarrak hirugarren postuan daude, lidergotzatik 2 puntura.

BINA KAKO

ORONA Fundazioa

ABENDUAK 14 LARUNBATA

16:30ETIK AURRERA
GALARRETA JAI ALAI HERNANI

1. PARTIDA | 2. MAILA (16:30)

ALDABE • AIESTARAN VI vs
IRAZU • ZALDUA

2. PARTIDA | 16:45

SEGUROLA • BARRENETXEA IV vs
EZKURRA II • AZPIROZ

3. PARTIDA | 2. MAILA (18:45)

LOITEGI • ZUBIRI vs
GURRUTXAGA • MARTIRENA

ERREMONTA BIZIRIK

MAKUR COUNTRY

DE ZICUNAGA, S.A.U.

SARBILAK ENTRADA

HITZORDUAK

ASTEARTE EGUERDIA BAINO LEHEN IGORRI HITZORDUAK. Tel.: 943 300 732 / andoain@aiurri.eus

ERAKUSKETA

ANDOAIN Margolanak

Naiara Delgadoren margolanekin erakusketa solidarioa, Nahia Patino Andoaingo haurren alde.

15:00, *Urkiola taberna*
Abenduak 15, igandea.

EGUTEGIAK

ANDOAIN, URNIETA Egutegia

Gipuzkoako Foru Aldundiaren egutegia herriz herri banatuko dute.
11:30-12:30, *S. Juan plaza, Urnieta*.
13:00-14:00, *Goikoplaza, Andoain*.
Abenduak 12, osteguna.

ANDOAIN Udal Egutegia

Sari banaketa ekitaldia abenduaren 16an da. Egutegiak herritarren esku hilaren 17tik aurrera izango dira, Salkineko egoitzan.
18:30, *Udal Artxiboa*.
Abenduak 16, astelehena.

KONTZERTUA

ANDOAIN Esti Markez

"Atenporal" diskoa aurkeztuko du kantari ezagunak.
19:30, *Bastero Kulturunea*.
Abenduak 13, ostirala.

DANTZA

URNIETA Amama

Aukeran Dantza Konpainiaren eskutik. Koreografiaren bidez, Euskal Herriko zazpi ipuin kontatuko dira, zazpi euskal lurraldeetako herri banatan kokaturik gai eta pertsonaia ezberdinekin. Edu Muruamendiarazen zuzendaritzapean.
17:30, *Sarobe. Sarrerak, agortuta*.
Abenduak 15, igandea.

GABON GIROA

ANDOAIN Udal Musika Eskola

Udal Musika Eskolako Bandaren kontzertua. Errepertorio zabala eskainiko dute.
12:30, *Bastero Kulturunea*.
Abenduak 15, igandea.



Lourdes Iriondo musika eskolako ikasleen kontzertua. AIURRI

URNIETA Lourdes Iriondo musika eskolako ikasleen kontzertuak

Instrumentuetan trebatzen ari direnek eta musika tailerreko ikasleek orain arte ikasitakoa erakutsiko dute.

Abenduak 16, astelehena:

18:00 Taldeen kontzertua. 19:15 Trikitixa emanaldia.

Abenduak 17, asteartea:

17:00 Musika-tailerra emanaldia. 18:30 Taldeen kontzertua.

Abenduak 18, asteazkena:

18:00 Saxofoi, perkusio, piano, klarinete eta tronpeta ikasleen emanaldia.
Sarobe arte eszenikoen gunea.

ANDOAIN Gabonetako saioa

Musika Eskolako ikaslerik txikienek ipuin musikatua eskainiko dute, "Altzegalaria" izenburukoa.
18:00 *Bastero Kulturunea*.
Abenduak 19, osteguna.

ANDOAIN Southern Gospel

Karlos Etxaniz, Jon Imanol Etxabe, Olatz Otxoa eta Santi Romano.
19:30, *Bastero Kulturunea*.
Abenduak 23, astelehena.


MAGIA

URNIETA Andoni Magoa

Andoni Martinezek "Desorekatua" ikuskizuna eskainiko du.
17:30, *Sarobe*.
Abenduak 22, igandea.




ZINEMA

**ANDOAIN****BASTERO****Jurado N.2**

Abenduak 14, larunbata. 19:30.
Abenduak 15, igandea. 19:30.
Abenduak 16, astel. 17:00, 19:30.

Vaiana 2

Abenduak 14, larunbata. 17:00.
Abenduak 15, igandea. 17:00.
Cuando cae el otoño
Abenduak 28, larunbata. 19:30.
Abenduak 29, igandea. 19:30.



SINOPSISIA

Jurado N.2

Zuzendaria: Clint Eastwood. **Aktoreak:** Nicholas Hoult, Toni Collette, J.K. Simmons, Chris Messina, Zoey Deutch, Cedric Yarbrough, Kiefer Sutherland, Gabriel Basso, Leslie Bibb, Ella Fraley, Scott Alan Smith, Grant Roberts, Ryan Pimentel,... **Herrialdea:** AEB (2024). **Hizkuntza:** Gaztelania. **Generoa:** Thriller, Drama, Intriga. **Iraupena:** 113 m.

Clint Eastwooden azkena

Justin Kemp familiako gizon bat da, hilketa baten epaiketan epaimahaikide da. Bitartean, dilema moral serio batekin borrokan ari da... Epaimahaiaren epaian eragiteko eta akusatutako hiltzailea kondenatzeko (edo askatzeko) erabil lezakeen batekin zerikusia du.



SINOPSISIA

Vaiana 2

Zuzendaria: David G. Derrick Jr., Jason Hand, Dana Ledoux Miller. **Herrialdea:** AEB (2024). **Hizkuntza:** Gaztelania. **Generoa:** Animazioa, musikala, fantasia, abenturak. **Iraupena:** 99 m.

Arrakasta handiko filmaren segida

Bere arbasoen ustekabeko dei bat jaso ondoren, Vaianak Ozeaniako itsaso urrunetara bidaiatu behar du eta galdutako ur arriskutsuetan murgildu, aurrekaririk gabeko abentura bat bizitzeko. "Vaiana" lehen film arrakastatsuen jarraipena da.



SANTA KRUZ ELKARTEA

Mus-txapelketa, Urnietan

Urnietako Santa Kruz arrantzale eta ehiztarien elkarteak antolatuta, larunbat honetan mus-txapelketa izango da. Mus jarduera honako hau izango da: 4 erregetara, 6 hamarreko eta 3 ustel. Izen-ematea 15:30ean egin behar da, eta txapelketa 16:00tan abiatuko da. Lehen lau onenentzat sariak iragarri dituzte, baina kontsolazio faseko finalistentzat ere.



AIURRI

Egunean Behin, azken txanpa

Azken txanpan murgiltzen ari da 16D denboraldia: Beñat, Maite, Ioritz, Nereita, Mirener, Txapar, Jonpoz, Inge, Patxi eta Izaro (amak jaso zuen saria, haren izenean) izan dira orain arteko saridunak. Guztiek ere Arruti gozotegiko sari goxoa jaso dute. Lehiaketa martxan jarri zenetik ehunka dira Aiurri taldean egunero-egunero jokatzeko ari diren lehiakideak.



UDALA

Trafikoan eragina duen lana


Pintore kaleko garajeen inguruan urak biltzeko lanak egiten ari dira eta horrek trafikoan eragina izango du. Udalak adierazi duenez, abenduaren 13ra bitarte, Akan eta Lizarditik Idiazabal kalera iristeko errepidea itxita egongo da. Gauzak horrela, lanek iraun bitartea Lizardi kaletik datozen ibilgailuek Akan kaletik jarraitu ahal izango dute.



AIURRI

Denboralearen eragina

Aurreko asteburua negu girokoa izan zen. Euria gogotik egin zuen eta horrek eragina izan zuen inguruotan. Andoain aldean Leitzarana eta Oria ibaiak nabarmen hazi ziren eta, ohi bezala, ur maila Zumea kaleko espaloiraino iritsi zen. Urnietan, berriz, tren geltokiko lurrazpiko pasabidea urez bete zen.



AIURRI

Zientzia, teknologia eta emozio tailerrak La Salle Berrozpen

Tailer interaktiboak izango dira, LH 5-6 mailako ikasleei zuzenduta. Ate irekiera modukoa izango da, La Salle Berrozpe ikastetxean larunbat honetarako antolatu dutena, goizeko 11:00etatik eguerdiko 13:00etara. Ikastetxeak adierazi duenez, "teknologia, zientzia eta emozioen mundu liluragarrian murgiltzeko aukera izango da".

Harrera ekitaldia bizilagun berriei

Abenduaren 15ean izango da Andoainen. 17:00tan hasita, Udaletxeko osoko bilkuren aretoan

Erredakzioa ANDOAIN

"Andoainen bizi garen guztiok osatzen dugu gure komunitatea". Abiapuntu hori hartuta, Andoaingo Udalak Andoainera iritsi berriei harrera egin nahi die. Igande honetan izango da, arratsaldeko 17:00tan hasita. Udal gobernuak oharra argitaratu eman du, ekitaldia iragarri eta asmoa adieraziz: "Aurrez aurre ezagutu nahi ditugu, gure egunerokotasunaren eta ohituren berri eman nahi diegu, eta esan nahi diegu hau ere haien etxea dela".

Pertsona horiek gonbidapen gutun bana jasoko dute etxean. Gutun horretan Andoaingo Oinarrizko Baliabideen Gida jasoko dute, audio formatuan. Baita Andoaingo familientzako baliabideen gida ere, PDF formatuan eskegitzeko moduan.

Denok gara andoaindarrak

Gobernu taldearentzat, "garrantzitsua da harremanak ereitea, indartzea eta iraunaraztea, komunitatea eta bizikidetzaren sendotzeko. Denok gara andoaindarrak, guztiok eraikitzen dugu herria egunegun, eta guztiok gara eskubide guztien jabe. Aniztasunaren definizioz zintzoena aberastasuna dela uste dugu.



ANDOAINGO EUSKERA, BIHOTZETIK KALERA!

EGOITZA BERRIA EROSTEKO DIRU-BILKETA

Itsulapikoa betetzeko 2024ko azken egunak!

Egizu zure ekarpena Rural Kutxako
ES70 3008 0159 8152 7622 5926
zenbakiko kontu korrontean sarrera eginez



ANDOAINGO
EUSKERA,
BIHOTZETIK
KALERA

Erantsi zure izena babesleen zerrendan!

ORAIN ARTE BILDURIKOA:

Herritarrek Rural Kutxan emanda:	4.200,00 €
Kaimuturrean:	625,90 €
Bertsolariak Oianumen:.....	50,60 €
Gau beltzean:	151,50 €
San Martin azokan (azaroak 9):	9.938,00 €
Basteroko jaialdian (abenduak 5):	2.745,00 €

DENETARA: 17.711,00 €



Egigun denon artean!



Babesle:



HURRENGO HITZORDUAK:
2024-12-19: Topazurrut!
Egin dezagun topa urte amaieran!!

